

Baserriak

Baserri hitza oraintsukoa da. Horren bidez, oro har, laborantzako eraikina edo etxea aipatzen da; hala ere, gaur egun oraindik ere nekazaritzan jarduten ez duten pertsonen ohiko etxebizitzei ere aplikatzen zaie.

XIX. mendera arte, baserri hitzak esangura zabalagoa zuen; horren barruan, ustiapenaren barruko eraikinak eta elementuak sartzen ziren. Baserri baten barruan, etxebizitza nagusia, labea, estalpea, garaia eta gainerako eranskin guztiak sartzen ziren eguneroko zereginetarako behar ziren eranskinak. Baserriaren barruan abereak eta lurrak ere sartzen ziren.

Lurrak, gehienetan, lursail txiki ez osaturiko onibarrak ziren; horiek etxearen inguruan zeuden eta, eurretan, familiaren kontsumorako produktuak ematen zituen baratzea zegoen; horien

ondoan lur handiagoak zeuden, horiek ere etxetik hurbil, eta eurretan zerealak erein edo larretzat erabiltzen ziren. Azkenik, urrunago lur sakabanatuak zeuden, norberarenak zein komunalak (baina erabilera pribatibokoak); horietan, gaztainak edo intxaurrak zeuden, edo zura lortzeko erabiltzen ziren, bortoak eta haritzak baitzeuden.

Esangura zabalagoan ulertuta (hau da, baserria famili lerro baten barruan belaunaldiz belaunaldi maiorazkoaren bidez egindako transmisiozat ulertuta), baserri hitzak garrantzi handiagoa hartzen du, horren barruan honako hau ere sartzen baitzen: familiaren hilobiak, elizako lekua eta, batzuetan, errentak edo tituluak.

Azkenik, Bizkaiko eta Euskal Herriko baserriaren barruan kontzeptu abstraktuagoak ere sartzen ziren, esate baterako,

abizen edo leinu baten orubea edo jatorria izatea. Abizenak edo leinuak sortzeko gaitasun horren eraginez (baserriaren forma idealizatzeari buruz egindako interpretazioak kontuan hartuta, amaren uteroaren edo altzo gozoaren itxura duelakoan), euskaldunon buruan baserriak berezko sinbologia hartu du, eta horren barruan, antzina-antzinako mitoak eta sinesmenak sartzen dira, eta erreferentzia matriarkal asko sortzen ditu.

Goian aipaturiko multzo osoa izendatzeko erabiliko dugu, beraz, baserri hitza. Nolanahi ere, hemen jasotako aipamen batzuetan ikusten denez, baserri hitza bi esanguretarako erabiltzen da, eta testuinguruak esango ditu kasuan kasuko esangura zein den.



Bilakaera.

Baserrien bilakaerari eta denboran zehar hartu zuten kanpoko itxurari buruz, Juan Ramón de Iturrizak hauxe idatzi zuen XVIII. mendearen amaieran: "Jaurerri honetako jatorrizko baserriak oraingoak baino txikiagoak izan ziren; zuhaitzekin egindako lau edo sei zutoinetan eraikitakoak ziren, eta lau angeluetan sasiekin, isatsezko zuhaixkekin, tajamanilarekin eta oholekin estalita zeuden, ohol asko baitzegoen eta eraikina txikia baitzen; baina jatorrizko baserrietatik gutxi batzuk baino ez dira kontserbatu; gainera, artatxikiz, zekalez, belar onduz eta beste erregai arriskutsuez beteta egoten zirenez, suteak oso ugariak izaten ziren, eta beraz, karez eta kantoz egiten hasi ziren, eta Ormaetxea izena eman zitzaien (hau da, hormekin itxita), lurzorutik teilatura zurezkoak ziren beste etxe batzuetatik bereizteko. Baserri batzuen oinak 120 pausoko zirkunferentzia dauka, neguan horien barruan 35 edo 40 abelburu sartu ahal izateko (behiak, ardiak, ahuntzak eta zaldiak); gehienek ataria dute, bertan gurdiak, lerak, nekazaritzako erremintak eta oilotokiak edukitzeko; labeak ere badituzte, ogia eta artoa egosteko; erlauntzak, harlauzazko heroak, haziak txikitzeko; lastategiak eta dolareak, sagarra habe handi eta astun batzuekin txikitzeko ("dolare-haitzak"), baina urte batzuetatik hona, kolaturiko sagardorik egiten ez denez, ez dira erabiltzen, eta galtzen ari dira." (ITURRIZA Y ZABALA, JUAN RAMÓN. "Historia General de Vizcaya". 1973)

Eredua.

Gaur egunera arte iritsi diren baserri eredurik zaharrenak aztertuta (XVI. mendeko zatirik handiena), ezin dugu jakin lehenagoko baserrien itxura zein izan zen (XVI. mendekoak horien ondoriozkoak dira). Halaber, ez dago pinturarik edo beste elementurik, Bizkaiari dagokionez, hori jakin ahal izateko. Hala eta guztiz ere, euskal etxea ikertu duten ikertzaile guztiak bat datoz honetan: eraikinik zaharrenak, XV. mendea baino lehenagokoak, Iturrizak goian deskribaturikoen oso antzekoak izango ziren, eta zurez eraikitakoak izango ziren, ia oso-osorik. XVI. mendetik aurrera, zuraren erabilera

apurka-apurka baztertu eta harriaren erabilera nagusitu zen.


Bigarren mota honen berreraikuntza, Bizkaiko baserririk zaharrenetariko batzuetan oinarriturikoa, honako hauxe izango litzateke:

Hasieran, oinplano angeluzuzena dute, zabalagoa aurrean alboetan baino, eta teilatu-gailurra fatxadarekiko elkarzuta da.

Fatxadan hiru modulu ditu. Alboetakoak zabalak eta harrizkoak dira, eta erdikoa laburragoa da eta zurezko egitura dauka.


Egitura asimetrikoa da; izan ere, teilatu-gailurra alboko horma baten (luzeena) goialdean euskarriturik dago, eta horretarako, horma hori harlanduz indarturik dago.

Segurutik kanpoko eskailera edukiko zuten, zurezkoa, fatxadari itsatsita, dorretxeen ereduari jarraituz.



Muskiz. Etxea Montañon.

Bigarren pausoa, fatxadako alboko moduluetariko bat euskarritzeko elementutzat ezabatzea arriskutsua izan daiteke; beraz, teilatu-gailur horren gainean eutsita mantentzen da, baina erdiko modulua nabarmen handituta.



Gordexola. Etxea El Pontonen.

Bilakaera logikoari jarraituz, fatxadaren simetria bilatu behar da, alboen luzera eta horiek erdikoarekiko dutena berdinduta. Horrela XV. mendearen azkenetako eta XVI. mendearen hasierako baserria sortu zen; alboak teilaturantz altxaturik ditu eta

erdiko alde atzera emanda (atzeragoko plano batean kokatuta, lerrokadura orokorrari dagokionez); horrek zurezko ateburua dauka, bi habe loditan euskarrituta, eta bertan, erdiko eskuineko oina euskarritzen da, eta horren gainean, halaber, teilatu-gailuraren burua eutsita dago.

Errenazimentuko formak nagusitu eta aldaketak sartu zituzten, eraikuntza tradizionaletan.



Mungia. Landetxo baserria.

XVI. mendeko baserria (oinplano angeluzuzenekoa eta baserri gotikoaren ondorengoa) guztiz hedatu zen. Alboko moduluen altuera murriztu eta horiek lehenengo solairuraino baino ez ziren altxatu. Hormetan zutoin bertikal lodiak euskarritzen ziren, baita euren arteko zutoin horizontalak ere, eta bertan, egitura estaltzeko oholak iltzatzen ziren. Lehenengo solairua, aldi berean, etxebizitza eta korta zen. Bigarren solairua bihitegia zen, bertan airea erraz ibiltzen baitzen.


Baserriarekin batera, XVI. mendearen




Orozko. Urgoiti. Munukogoiakoa baserria.




hasieratik, etxe kubikoa bizi da, gure geografia osoan hedatuta, baina hori interes bereziarekin hartu zen Enkarterrietan. Hiru solairu ditu, eta kanpoko eskailera; hasiera-hasieratik, kortetarako solairua (beheko solairua) eta etxebizitzarako solairua (lehen solairua) bereiztu ditu. Horien gainean bihitegia dago. Alde batetik besterako aldaketa txikiekin, egitura hori aurrerantzean ere erabili zen. Herri arkitektura horrek jauregien proposamen kubiko ugari hartu zituen.



Kortezubi. Oma. Zearra baserria.



Zamudio. Kadaltso baserria.




Gueñes. Baserria Santxosolon.


XVII. mendean, zutoinen egituradun baserria nagusitu zen behin betiko. Horren formak, Julio Caro Barojak dioenez, honako bilakaera hauxe eduki du: "zaharretan, goiko solairuko zutoin bertikalak habe horizontalei lotuta daude (metro batetik beherako distantzian kokaturiko habeak), baina beste habe zeihar oso luze batzuei lotuta ere. Gero, habe horizontalen kopuruak behera egin zuen, modu erregularrean jarritako habe bertikalen kopuru handiagoaren mesedetan. Azken fasean, habe zeiharrak nagusitu ziren. Egitura ere aldatu egin zen, eta, zurezkoa izan beharrean, hutsuneak adreiluekin eta substantzia mineralekin bete ziren. Bizkaian eta Araban, zurezko elementuak Gipuzkoan baino txikiagoak dira, eta, batez ere, fatxadaren erdian pilaturik daude." (BAROJA, JULIO CARO. "Los vascos". 1971)



Baserria Arteagan.




Orozko. Usuluze baserria.



Berriz. Isuntze baserria.

XVIII. mendean, zutoinen egituradun baserria baztertu egin zen; hasieran, apurka-apurka baztertu zen, harik eta guztiz desagertu arte, eta horren ordez, herri arkitekturari aplikaturiko baliabide berria erabili zen: ataria, erdi-puntuko arku murriztuarekin, karrerako habearen ordez. Horren gainean, harri landutako hormako atal handiak euskarritzeko aukerak, halaber, eskema berriak hartzeko bidea eman zuen: fatxaden egitura aldatu, solairu kopurua handitu, barruko gelak aldatu, argi kopurua handitu eta argiak indartsuagoak izan... Eraikuntza mota horrek Bizkaiko ekialdean hartu zuen hedapen eta osperik handiena.



Abadiño. Gaztelua. Iturriaga-Etxebarria baserria.

Hala eta guztiz ere, mende horretako garaile nagusia baserri kubikoa izan zen; lau hegaleko teilatua zuen, eta horren aldagai guztiak Bizkaia osoan zabaldu ziren.

Bi eredu horietan, guztiz bereizten dira etxebizitzarako eta kortarako solairuak.

Gure baserrien ezaugarri nagusien artean honako hauek dira aipagarrienak: salbuetsitako eraikina, gorputz prismatikoa eta trinkoa duena, fatxada nagusia ekialdera begira dagoelarik. Oinplanoa angeluzuzena denean (gehienbat "sakoneran", baina zabaleran ere bai), estalkia bi hegaletakoa izaten da, eta teilatu-gailurra fatxadarekiko elkarzuta da, baina hirugarren hegala edukitzea ere ez da arraroa, agerian dagoen aldean kokatuta (hormako atala murrizteko). Oinplano karratuko baserrietan (altuagoak), lau hegaletako estalkia erabiltzen da. Halaber, baserriak sakabanaturik egoten dira, auzune txikiak eratuz.



Baserriaren barriadura.

Autorerik gehienek diotenez, Bizkaiko baserriak barriaturik daude, mota atlantikoak dira, eta hori kontrajarri egiten zaio Ekialdeko, erdialdeko edo Pirinioetako baserriari. Etxebizitza atlantikoak (geurea mota horren barruan sartzen da) harrizko etxeak eta zurezko egiturak ditu; gainera, bi hegaleko estalkia dauka, inklinazio handirik gabea (20-40° bitartekoa), eta teilatu-gailurra fatxada nagusiarekiko elkarzuta da (baserrien barriadura duen aldearen ezaugarria).



Berango.

barruntzen zen: "Etxe kongregazioen edo batzen artean distantzia luzea edo jurisdikzioa zegoen, eta bertan, lekaleak erein eta fruta-arbolak landatzen ziren. Eta populazioa beti zen mota horretakoa; horrela, hogeit hamar etxe baino gehiago egon ez arren, horiek barrutiaren legoa erdia hartzen zuten euren barruan, eta pertsona kopuru berberarekin, beste batzuetan barruti handiagoa, bertako jendea aberatsagoa ala pobregoa izatearen arabera" (ECHAVE, BALTASAR. Año 1607).



Galdames.

Henaok dioenez, Bizkaian "distantzia handietan barriaturiko etxeekin osaturiko errepublikak" zeuden (P. HENAO).

Zamacolak (Abandoko Bakearen Portua proposatu zuenak), bere jaioterria izandako Dima herriari buruz aritzean, "barriaturiko etxeen eta etaldean errepublika" aipatzen du (ZAMACOLA, J.A. "Historia de las Naciones Vascas". 1818)

Lehenengo hiri pilaketak edo herriak nahiko urrun zeuden elkarrengandik. XVII. mendean ere antzinako egitura hori



Zeanuri.

"Beste batzuek esan zutenez, Foruaren eta Legearen arabera, edozein bizkaitarrek gotorlekua egin dezake bere onibarrean, Bizkaian, berak nahi duena"

(Bizkaiko Forua. 24. titulua, II. legea)



Dima. Biteriño.

XVIII. mendearen amaieran, Iturriak dioenez, Bizkaian 13.610 etxe zeuden, eta horietatik, 3.610 inguru hiribilduetan eta Mundaka, Elantxobe, Ea eta Ausleri herrietan zeuden. Gainerako hamar milak mendietan eta lautadetan sakabana-turik zeuden. XX. mendearen amaieran, Bizkaiko baserri kopuruak ez du aldaketa handirik izan: 9.500 baserri inguru daude. Hala eta guztiz ere, ustiapenaren modu tradizionalari eusten diotenak gero eta gutxiago dira.



Loiu. Bengoetxe baserria.

"Herri horretako (Bizkaia) lurralde menditsuan dauden baserri barriaturik gehienak zenbait mendetakoak dira. Era askotako lurrak dituzte, proportzio finkoetan, laborantza onaren eskakizun konplexuei erantzuteko, laborariaren ongizatea bermatzeko eta jabe nahiz kolono familia berberaren barruan oso-osorik irauteko" (TRUEBA, ANTONIO. "Organización social de Bizkaia". 1966)



Zeanuri. Ipiñaburu. Hernandorena baserria.

XVII. mendearen hasieran, zurezko etxeak ohikoak ziren, eta orduko garaikideek argi ikusten zuten horien eta harrizko etxeen arteko aldea: "Etxeari ITXIA esaten zaio, eta orain ETXEA eta ETSEA; eta hormarekin itxita dagoenari, ORMAITXIA" (ECHAVE, BALTASAR, 1607. urtea)



Bizkaiko mendebaldeko baserria.

Alde honetan, laborantza-etxearen eredu berezia dago; bertan, Bizkaiko eta Kantabriako lurak nahasten dira. Tratatu-idazle batzuen iritziz, hori "kantabriar estilokoa" (tratatu idazle bizkaitarrak idatziz gero) edo "bizkaitar estilokoa" (tratatu idazle kantabriarrak idatziz gero) da. Ulergarria da hori horrela izatea; egin-eginean ere, alde horretako etxe motak, mugan dagoenez, komunitate bateko eta besteko elementuak hartzen ditu. Hala eta guztiz ere, sinbiosi horretatik ezaugarri bereziak dituen etxe berezia sortu da (eskualdeen arteko ezaugarriak dituen etxea). Horren eremua, gutxi gorabehera, Ason ibaiaren eta Balmaseda-Muskiz errepideak eraturiko ardatzaren artean dago; horren barruan, Karrantza, Turtzios, Villaverde, Artzentaletas, Guriezo eta Liendo haranak sartzen dira, Sopuertako nahiz Zallako kontzejuetako mendebaldeko alderaino eta Montellano (Galdames) auzoraino hedatuta; gero, Somorrostroko haranean sartzen dira (Santurtzi, Muskiz, Abanto eta Zierbena), baita Asonen haranean ere. Eskualde horretako erdigune geografikoa Agüera ibaiaren harana da, bertan baitago halako baserri pilaketarik handiena.

Eskualde honetako baserriaren elementu arkitektoniko nagusiak, beste alde batetik, su-moztekoak dira; horiek harlandu handiekin amaituta daude; harlanduok, berriz, fatxadan nagusitu eta euskarritzat zein babestzat erabiltzen dira, fatxada nagusia alde batetik bestera zeharkatzen duten zurezko balkoi handietarako. Elementuen banaketa horri esker, etxearen aurrealdean estalitako eremua dago, ataria baillitza, eta hori zuhaina behin-behinean biltzeko edo nekazaritzako nahiz abeltzaintzako lan jakinak egiteko erabiltzen da. Balkoiak eraikinaren lehenengo solairuan egoten dira (etxebizitzaren solairuan), baita bigarren solairuan edo ganbaran ere, eta solairu hori belar ondua eta beste produktu batzuk biltzeko erabiltzen da. Balkoia lehen solairuan baino ez duten baserriak ere ikusten dira, eta beste baserri batzuek, berriz, hiru balkoi dituzte, altueran egindako birmoldaketan edo aldaketan ondorioz (adibidez, beste etxebizitza bat egiteko).

Beste ezaugarri aipagarri bat teilatuaren tipologia da; lau hegalekoa da, eta horietariko bat, aurrealdekoa (batzuetan atzealdekoa ere bai) miruaren buztan itxuran amaituta dago. Deskribaturiko elementuak konbinatzearen ondorioz, salbuesitako baserria sortzen da (salbuespenak salbuespen), eta hori isolatuta egoten da, edo auzuneetan integratuta.

Halako etxebizitzaren jatorria,

segururik, XVIII. mendean aurkituko dugu, eta horren zabalkunderik handiena XIX. mendean izan zen, nekazaritza eta abeltzaintza finkatzeari esker, eraikina horretarako baitago sortuta.

Eraikinak, beste alde batetik, kantabriar arkitektura tradizionalako elementuak (eguterak eta su-moztekoak, gehienbat) euskal baserriaren elementuekin konbinatzen ditu (salbuesitako eraikina, egitura sakonekoa, fatxada teilatu-gailurrearekiko elkarzuta delarik), baina Nafarroako mendialdeko eskualde batzuetako etxeen ezaugarriak ere baditu, horietan ere balkoia elementu garrantzitsua baita.



Karrantza. Villanueva de Presa.



Abanto. Murrieta.



Lanestosa.



Artzentaletas.



Abanto. Las Carreras.



Etxe kubikoa.

Baserri sakona bezain ikusgarria izan ez arren, gure geografiako bazter guztietan aurkituko dugu.

Aldagai asko onartzen ditu, hasi eraikin apaletatik eta jauregi itxura duten eraikinetara.

Mendebalderen dagoen aldean, Turtziozko baserriaren ondoan, eraikuntza mota sendoa da, ertzetan eta ate nahiz leihoen inguruetan harlandua duena (gainerako zatian manposteria dauka). Oinplanoa angeluzuzena da, zabaleraren nahiz luzeraren arteko aldea oso nabaria izan arren, eta teilatua lau hegalekoa da. Gehienetan, sarrera

bakarra izaten du, eta bertatik gelaraino iristen da; bertan, bi sarbide daude: bata kortetarako (lehen solairuko atzealdean daude kortak) eta bestea etxebizitzarako (lehen solairuan dago, eta bertara kanpoko eskailera batetik igotzen da). Atikoan bihitegia dago, aireztapen zulo handi eta ugariduna. Lehen solairuan, sarreraren gainean, gela nagusia dago; horrek balkoia dauka eta bertako sarbidea ate nagusiaren gainean dago.

Arratiako haranean beste etxebizitza mota bat dago, "Arraiako etxea". Eraikuntza hori "apala" dela esaten da, inguruko beste tipologia batzuekin

konparatuz gero; apaltasun hori gehienbat hormetan nabaritzen da, harlandu urrikoak baitira, eta manposteria ere entokatu barik dago. Hiru solairu ditu, lau hegaleko estalkiarekin. Beheko solairua independentea da, eraikinaren gainerako zatiarekiko, eta bertan kortak baino ez daude. Etxebizitza lehenengo solairuan dago, eta bertara kanpoko eskailera batetik igotzen da; eskailera hori zurezkoa edo harrizkoa izan daiteke. Azken solairuan bihitegia dago. Hegala oso nabaria da; horrenbestez, pisuari eusteko, jabaloiak erabili behar dira.



Zalla



Zalla



Gueñes.



Galdames



Sopuerta



Iurre



Dima



Zeberio



Ageriko adreilua duen baserria.

Adreilua, segurutzik, zuraren ordezkotzat hasi zen erabiltzen, hiriko etxeetan, zuraren gehiegizko erabilerak sute-arrisku handia sortzen baitzuen. Garibay-ren ustez, Bilbon hasi zen erabiltzen, harriarekin tartekatuz, 1571ko sutearen ostean. Material hori ez zen arraroa; izan ere, Vitoria-Gasteizeko eraikin batzuetan (adibidez, "El Portalon" deritzonean, XV. mendekoa) adreiluak fatxada osoa estaltzen du; Garaibay-k dioena, hortaz, ordura artekoa baino erabilera orokorrago bati egindako erreferentziatzat hartu behar da.

Baserrietan, dirudienez, XVI. mendearen erdialdean hasi zen adreilua erabiltzen, kanpoko zutoinen arteko hutsuneak estaltzeko, zuraren ordezt, harri-koskorren nahiz burdinola hondakinen edo masatzat erabilitako landare nahasteen ordezt.

Adreilua ia Bizkaia osoa mutur batetik bestera (Asuaren haranetik Durangaldera) zeharkatzen duen zerrenda batean zabaldu zen batik bat, eta adibiderik ugariak Abadiñon eta Berrizen aurkituko ditugu.

Adreiluaren ohiko posizioa horizontaletara da, ilaren artean masa sartzeko zerrendatxoak utziz, zurezko posteak bai agerian edo bai neurrian fabrikaturiko adreiluarekin estalita daudelarik (habeen marrazkia mantentzen da); horrek berebiziko edertasun plastikoa ematen dio baserriari.

Azken adibideak XVII. mendekoak dira, fatxadetan zura erabiltzeari guztiz utzi zioten garaikoak; aurrerantzean fatxada hori harrizkoa egin zuten erabat, eta pisua murrizturiko arku batean askatu zuten; moda berriaren arabera, gainera, fatxadak zarpeatzen eta manposteria estaltzen hasi ziren.



Zamudio. Kadaltso baserria.



Kadaltso baserria. Fatxadaren irudia.



Abadiño. Gaztelugoia baserria.



Abadiño. Gaztelugoia baserriaren eranskina.



Berriz. Isuntze baserria.



Berriz. Isuntze baserria. Grapekin eutsitako habearen zorroaren irudia.



Berriz. Berrizbeitia baserria.



Zeanuri.



Gueñes. Errekalde.



Elorrio. Etxebarria baserria.



Arteaga.



Jauregi-baserria.

Dorretxe batzuek euren eginkizun militarra ahaztu eta laborantzako benetako baserriak izan ziren; talde horrek ezaugarri bereziak ditu, bertan eraikuntza mota bateko eta besteko elementuak nahasi baitziren. Multzoak jauregi itxura hartu zuen. Tipologia hori Dorretxeei buruzko atalean aztertzen da (aldaturiko dorretxeak). Hibrido hori ez ezik, denboran horren baliokidea izandako baserri mota bat egon zen; laborantza etxearen eginkizunak zituen, eta horri jauregiaren ezaugarriak erantsi zitzaizkion. Halako baserriak gehienbat XVIII. mendean garatu ziren, eta euren adibiderik onenak Elorrio-Markina arteko eremuan daude.

Jauregi-baserriaren protagonista nagusiak bolumena eta harria dira. Manposteriazko horma-atal itzelak, ertz guztietan harlanduz amaituak, sakonera eta altuera handiagokoak dira. Arkitektoak beldurra galdu dio fatxadan erdi-puntuko arku oso murriztuetan askatzen den pisuari. Kofadurak zabalak eta ugariak dira. Leihoen eta balkoiaren ertzetan elementu apaingarriren bat dago.

Arku handi batek (batzuetan bi, apaïndutako dobeladunak) fatxada irekitzen du. Horren (edo horien) gainean, sarritan, gurutze baten erliebea dago.

Toki nagusia betez, fatxadaren erdialdean edo horren ertzetariko batean, armarria dago; XVIII. mendeko joerari jarraituz, armarriak familiaren lau adar edo gehiago adierazten ditu.

Kortak batzuetan multzo osoaren barruan daude; hala ere, batzuetan eranskin itxura dute. Eraikin oso handietan (plano handiko eraikinetan), espazioaren galera oso handia izatearen eraginez, baserriaren benetako erabilera osatzeko, eraikuntza laguntzailea egin behar izan da, bertan gurdia eta baserriko tresnak sartzeko.



Goiko irudiak: Elorrio. Etxebarria baserria. Ikuspegi orokorra eta fatxadaren nahiz balkoiaren irudia.



Elorrio. Zenita.



Axpe. Donibane.



Apaindutako etxea.

Etxebizitzetan bereizgarriak erabiltzeko ideia (horien bidez, jabeak identifikatu ahal izateko), segurutik, gizakiak lehenengo bizilekuak eraiki zituen garaioa da.

Zenbaitetan, gizarteko gainerako kideek ezagutu behar dituzten ikur batzuen bitartez (ikur iraunkorrak edo eziraunkorrak), ideia asko eta asko adierazi dira. Batzuetan (adibidez, erlijio-erakinetan, jauregi itxurakoetan edo erakundeen eraikinetan), sinbologia eraikin horien berezko osagaia da. Eraikin zibiletan, hala eta guztiz ere, ikurrak ez dira hain ohikoak, baina horrek ez du esan nahi ikurrik ez dagoenik.

Azken eraikin mota horri dagokionez (hain zuzen ere, Euskal Herrikoie dagokionez), esan behar da horietan ere sinbologia erabili dela, era guztietako ideiak adierazteko, esate baterako: sinesmenak (gurutzea, eguzki-ikurrak, landare magikoak), jarrerak (dorretxeen goreneko lekuan jarritako galdara bat abegiaren ikurra zen), gizarte maila (armarrien edo koloreen bidez)...

Elementu horien integrazio egokia (eraikinean) apaingarria zen; ez da harritzekoa sarritan ikurren jatorrizko esangura ahaztu eta sinbologiak apaindurazko eginkizun hutsa edukitzea. Elementu nagusia armarrria da, eta horrek arkitekturaren garrantzi handia eta lehentasuneko lekua lortu du; izan ere, egituraren beste zenbait elementuren kokalekua baldintzatu du, adibidez, ateena eta leihoena.

Jakina, ikurrak jartzeko aukeraturiko lekua bat dator etxe eta baserrietako leku nagusienekin: fatxada, ate edo leiho nagusiak.

Freskoen bidez apaindutako etxeen adibide aipagarriak: Ikaza jauregia, Larrabetzun. Pinto Etxea, Berriatuan abadearen antzinako etxea, XVIII. mendearen amaierako freskoak dituena. Markinan ere freskodun etxeren bat gelditzen da, egoera txarrean, adibidez, Munibetxea edo Murgako jauregia.

Apaindurako beste elementu bat (nahiko urria, baina aipatzeko moduko garrantzia duena) pertsona edo

animalien bustoen erabilera da; eliza batzuetako atarietan dauden oso antzekoak dira. Horien helburua, gehienetan, etxearen jabeen erretratua egitea zen, eta ez dirudi ideiarekin bat adierazi nahi dutenik.



Durango. Larizko dorreko fatxadako bustoak.



Durango. Udaletxea. Berrikuntza asko egin diren arren, eraikin hori hiribilduko Erregimentuak altxatu zuen, 1566an. Obrak apurka-apurka egin ziren: traza (Bernabé de Solano harginak egin) amaitu barik zegoen 1582an. 1609an amaitu zen, Juan de Garay-k fatxadan errege armarrriak eta hiribilduarenak pintatu zituenean. Lehenengo berrikuntza 1770ean egin zen, eraikina egoera txarrean eta osatu barik baitzegoen. 1994ko berrikuntzan, Bizkaiko Kultur Batzak oinplanoa eta arkupeak kontserbatzeko irizpide egokia hartu zuen, horiek estilo horretako bakarrik baitira Bizkaia osoan. Eloy Garay bilbotarrari, Ignacio de Zumarragak 1771n motibo arkitektonikoekin, aingeruekin eta abarrekin egindako pinturak berregiteko agindua eman zitzaion.





XVIII. mendean manposteria ezkutatzeko moda sartu zen; horretarako, zarpeatu batekin estaltzen zen eta, bertan, pinturan bitartez, harlanduzko akabera imitatzen zen. Era berean, sarritan baserriak luzitu eta euren fatxadak kolore askorekin pintatzen ziren, gehienbat kolore anilak, lur koloreak, okreak eta gorriak; horren eraginez, kolore nagusia bata ala bestea izatearen arabera, desberdintasunak sortzen ziren eskualde batetik bestera. XVII. mendean, freskoak sarritan erabiltzen ziren, etxeen fatxadak apaintzeko, baina Bizkaian kontserbatu diren adibideak XVIII. mendekoak dira. Fresko garrantzitsuak dituen eskualdea, bestalde, Bizkaiko ekialdea da, Larrabetzu, Durango, Markina eta Areatza hiribilduek eraturiko ingurua. Goiko irudietan, Ikatza eta La Angulería jauregiatiko freskoak ikusten dira, biak Larrabetzun. Behekoetan, Areatzako Gortazar jauregiaren bi ikuspegi ageri dira.



Orozko. Kanpoko apaindurako beste motibo nagusi bat bustoen erabilera da, bai pertsonen bustoak, bai animalienak; horretan, gure eliza eta baselizetako atari askotan oso zabaldua dagoen tradizioari jarraitu zaio. Batzuetan, etxearen jabeek buruzkoak dira; beste batzuetan irudi magikoak dakarte gogora, esate baterako, marrazki honen kasuan; bertan, landutako buru bat ageri da, Orozkoko Urigoiti baserriaren egituraren (gaur egun desagertuta dago).



Markina. Murga edo Bidarte jauregia. Goiko galerian, motibo piktorikoen aztarna batzuk ageri dira.



Goikolexea. Oloste jauregia. XVII. mendeko baserri inguruko jauregi baten adibide bitxia. Fatxadaren gizonen eta emakumeen bustoak ageri dira.



Eskualdeen berezitasunak.

Bizkaiko haran bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta horrek gainontzekoetatik bereizten edo horien antza ematen dio. Batzuetan, haran baten auzo desberdinetan dauden baserriak guztiz desberdinak dira bata bestetik.



Loiu.

Mungialden, esate baterako, baserriak etxebizitza laguntzailea edukitzen du, etxearen aurrean, bertatik metro gutxira, eta bertan era askotako erabilerak egiten dira: bihitegia, nekazaritzako erreminten nahiz tresnen biltegia, bigarren korta behiak ez diren abereentzat (zaldiak, ahuntzak, ...), etab.

Erregimen Zaharra amaitzean, Mungiak eta bere eskualdeak ezin izan zuten Bizkaiko merkataritza egiturari sartu. Itsasorako berezko irteera eduki arren (Plentziako portuaren bitartez), horrek ez zuen aukera handirik eskaintzen eta nahiago izan zuen Asuarekiko konexioa erabili (Derioren bitartez), hori bere lurraldearen barruan baitzegoen. XVIII. mendearen hasieran bertako erreka ertzetan instalaturiko burdinolak desagertu zirenean, eskualdeko jarduera nagusia nekazaritza sektorerara mugatu zen. Bere garapen ekonomiko urriaren erakusgarri, esan daiteke jauregi, egoitzazko eraikin eta XVII. mendearen osteko baserri gutxi dagoela. Mungia inguruan arku murriztua duen baserri kopuru oso txikia dago (harrizko fatxada duten baserriak).



Mungia.



Erandio-Goikoa.



Berango.



Sopela.



Meñaka.



Mungia.



Meñaka.

XVII. mendearen azken urteetatik aurrera eraikitako baserri asko dago, eraikuntza apalekoak, eta horiek inguruko materialak erabiltzen dituzte. Erdi-puntuko arkuen bitartez egindako sarrera dute, eta horien dobelak manposteria gogorrez landuta daude, harlanduz landuta egon beharrean. Horietan ez dago arkitektura kultuko elementurik, ezta lana garestitzen duen elementurik ere. Kukullagatik (Etxebarri, Bilboren ondoan) Ipiñaburura (Zeanuri) doaz. Kopururik handiena Zeberion dago, baina baita beste leku batzuetan ere, esate baterako, Basaurin, Orozkon eta Ugaon.



Zeberio.

